

MACINTOSH IIx, APPLE BERRIA

Apple Computer-ek Macintosh SE ordenadorearen konfigurazio berri bat aurkeztu du. SE 2/40 da konfigurazio berri honen izena eta 2 Mb-ko RAM memoria, 40 Mb-ko disko gogorra eta 800 Kb-ko disko malgu bat barneratzen ditu.

Honez gain badute beste ordenadore berri bat ere, Macintosh IIx-a, 68882 koprosadore matematikoa duena eta Motorolaren 68030 prozesadorean oinarritutako lehen ordenadorea.

Macintosh IIx-ak abantaila interesgarri bat eskaintzen du: MS-DOS nahiz Apple II formatuetan idatz eta irakur dezakeen 3'5 hazbeteko disko-unitatea. Hau aurrerapauso garrantzitsua izan daiteke ordenadoreen arteko komunikazio-arloan.

Orain arte PC eta Macintosh baten arteko informazio-trukea egiteko adibidez, bitarteko programetaz baliatzen ginen; MacLink programaz esate baterako.

Bitarteko programa hauek bi makinaren arteko konexio fisikoa eskatzen dute eta askotan testua pasatzea lortzen bada ere, formatua galdu egiten da.

Pentsatzekoa da sistema berri honekin ez dugula horrelako eragozpenik izango eta okerreanean ere konexio fisikoa behintzat ebitatuko dugu.

DIGITAL-EN ZUZENTZAILE GRAMATIKALA

Digital Equipment Corporation-ek kaleratua du jadanik VAX Grammar Cheker, ordenadore bidez lagunduriko zuzenketarako kaleratu den lehenengo softwarea. Ingelesean idatzitako testuak zuzentzeko balio du.

Diotenez, dokumentu bat edo testu bat zuzentzerakoan, esaldien egitura sintaktikoa analizatu eta esaldia osatzen duten hitzen funtzio eta erlazio gramatikalak identifikatzeko gai omen da. Beraz, hau ez da aurrez gordetako hiztegi batekiko konparazio hutsean geratzen.

Ordenadorea itzulpen automatikorako tresna lagungarria izan daitekeela eta, ugari dira azken urte hauetan arlo horretan egiten ari diren ahaleginak: lengoaiaren naturalaren azterketa, zuzentzaile ortografikoak, etab.

Orain arte lortu diren emaitzak nahikoa eskasak izan badira ere (programa gehienak hitzez hitz itzultzen saiatzen ziren, kasu askotan oso esaldi bitxiak lortuz), lehen urrats bezala kontsideratu behar dira eta ondorengo saiakuntza edo ikerketa hauen oinarritzat hartu.

Badirudi programa berri hau zuzentzaile ortografikotik aurrera doala eta sintaxi- edo puntuazio-erroreak, maiuskulen erabilera desegokia eta akats ortografikoak detektatu eta zuzentzen dituela.

ERAIKUNTZARAKO PROGRAMAK

Archimaid, eraikuntz munduko profesionalek diseinatutako programa da eta dokumentu grafikoak (oinak, sekzioak, perspektibak) nahiz testu-dokumentuak (neurketak, aurrekontuak etab.) sortzeko oso erreminta erabilgarria.

Programa hau erabat automatizatua dago eta soluzio lehenetsiak eskaintzen ditu, beti ere erabiltzaileak erabakietan parte hartzeko aukera izango duelarik.

Neurketak, dokumentu grafikoak sortzerakoan sortutako datuetan oinarrituz, automatikoki egingo ditu.

Archimaid, bereizmen altuko pantaila grafikoa eta taula digitalizatzailea duen edozein IBM/AT bateragarritan exekuta daiteke.

Bestalde, interface-ari esker oso erraza da programaren eta erabiltzailearen arteko komunikazioa.


dBASE III PLUS ETA BYLINE ELKARLANEAN

Informatika-munduan dabilen edonork ezagutuko du datu-baseren bat eta baita testu-editoreren bat ere, noski.

Gertatu izan dena, zera da: bi aplikazio hauek aparte erabili izatea, eta bakoitza helburu konkretu batekin erabili ere. Testuak era txukunean, hau da, letra-mota desberdinak, marjinak, tabuladoreak etab. erabiliz aurkeztu nahi izan direnean, testu-editorera jotzen genuen. Aldiz, datu-baseak egitura berdina duten datu-multzoak gorde, sailkatu, bilaketak egin etab. etarako soilik erabiltzen dira askotan.

Hala ere, datu-baseetan daukagun informazioa testu normaletan txertatzeko premiak gero eta handiagoak dira; bezero edo harpidedun guztiei gutun pertsonalizatua bidali nahi zaienean adibidez.

Byline-rekin guzti hau oso erraz egin daiteke, dokumentuetan aldaketa horiek automatikoki burutzeko datu-basea eguneratuta edukitzea nahikoa izango delarik.



dBASE IV KALEAN

dBASE IV; dBASE II, dBASE III eta dBASE III PLUS, PCen inguruan erabilien izan diren datu-baseen jarraipen edo ondorengo bezala datorkigu eta OS/2 eta MS-DOS sistema eragileen pean funtzionatu ahal izateko diseinatua izan da.

Ashton-Tate/Microsoft etxeko dBASE IV eta SQL SERVERek miniordenadoreen ahalmena eta lan-estazio adituak erabili ahal izateko posibilitateak konbinatzen dituzte.

Aldi berean, Ashton-Tate-k beste utilitate berri bat (Step I Vward) kaleratzeko asmoa ere iragarri du; Clipper, FoxBase eta Quicksilver-en garatutako aplikazioak aldaketa txiki batzuekin bakarrik dBASE IV/SQLra bihurtzeko utilitatea hain zuzen ere.

Step I Vward menu bidez zuzenduriko aplikazio independentea da eta lehenago aipatutako aplikazioetan egingako iturburu-programetatik dBASE IV/SQLn exekuta daitezkeen programak lortzeko aukera ematen du, dBASE IV datu-basearen erabiltzaileek erabili ahal izan ditza- ten. ■